

# ADANA

– ARABA / ÁLAVA –

Adana Donemiliaga udalerriko kontzejua da, Aguraingo kuadrillaren barruan. Gasteiztik 19 bat kilometro egin behar dira bertara heltzeko, honetara: hiritik irten eta Donostiarako bidea, N-104, hartu behar da lehenengo, eta atzean utzi Elorriaga, Arkauti eta Ilarratza. Eskuinetara egin behar da gero, Dulantzirako errepidea, A-3110, hartuta. Handik minutu batzuetara, Burgelu eta Dulantzi pasatu ostean, ezkerreko irteerak Adana erdigunera eramango gaitu zuzenean.

Reja izeneko agirian badago herrixka honen aipua, *Adanna* izenaz jaso, golde-burdina bat eman zuela eta. Aipua, baina, okerreko lekuan kopiatu zuten, Langraizko *alfoz* edo barrutiari zegokionean, baina beste leku bat zegokion Adanari, *VIII alfozes* zeritzena, Lopez de Ocarizek, aurreko urteetako hutsunea zuzenduta, 1987. eta 1988. urteetan zehaztu zuen bezala. Era berean, Aznar gotzainaren 1257ko zerrendan ere ageri da izena.

La pequeña localidad de Adana pertenece al ayuntamiento de San Millán y se enclava dentro de la Cuadrilla de Salvatierra. Se sitúa a unos 19 km de Vitoria-Gasteiz, desde donde se accede, saliendo de la ciudad hacia San Sebastián, por la N-104 dejando atrás Elorriaga, Arkauti e Ilárraza. A la derecha se toma el desvío que lleva en dirección a Alegría-Dulantzi por la carretera A-3110. Tras unos minutos, y pasando Elburgo y Alegría, la salida a la izquierda conduce al centro del pueblo de Adana.

Adana se cita en el documento de la Reja como *Adanna*, entregando una reja, pero está copiado fuera de sitio, al comienzo del Alfoz de Langraes, cuando su lugar es en el *VIII alfozes*, dato aportado por López de Ocaríz y aceptado como corrección del vacío anterior. También aparece en la lista del obispo Aznar de 1257.

## *San Bartolome eliza / Iglesia de San Bartolomé*

**S**ALOI-OINPLANOKO eraikina da, burualde zuzen eta hiru ataldun nabe bakarrekoa. XVI. mende inguruko omen da, eta kanpoaldean nabaritzen zaizkio antzinako eraikin erromanikoaren aztarnak: iparreko horman, kasurako, harburu leunen aztarnak, lehen egitura erromanikoaren garaiera erakusten dutelarik. Mendebaldean, berriz, dorre neoklasikoaren barruan, kanpai-horma ageri da. Ez du altuera handirik, eta zulo bi ditu kanpaietarako. Horrez gainera, hegoaldean, elizpearen eta sakristiaren artean, arku eta fuste batzuen arrastoak ere badira, horman sartuta. Izan ere, horiek denak berrerabili egin zituzten XVII. eta XVIII. gizaldietan eliza berritu zutenean.

Portada da eliza honetako elementu erromaniko deigarriena, XVIII. mendearen amaieran eraikitako elizpeak babestuta. Bi arkiboltak eta deskarga-arku batek osatzen dute. Barruko arkibolta baketoiduna da, eta kanpoko molduraduna, gune konkaboak eta konbexuak tartekatuta. Horiekin batera, diamante-puntaz egindako zerrenda aipagarri bat dago. Deskarga-arkua xake-motiboekin dago apainduta, eta inposta lau baten gainean dator multzo osoa.

**S**E TRATA DE UN EDIFICIO de planta de salón con cabecera recta, nave única con tres tramos, fechable hacia el siglo XVI, que conserva restos de la primitiva construcción románica en el exterior: en el muro norte quedan restos de canes lisos que marcan la altura de la primera fábrica románica, y al Oeste, formando parte de la torre neoclásica, aparece inserta la espadaña, de baja altura y con dos huecos para campanas. Además, en el lado sur, en el espacio situado entre el pórtico y la sacristía, hay varios restos de arco y fustes inscritos en el muro. Todos estos elementos fueron reutilizados en la reforma realizada durante los siglos XVII y XVIII.

El elemento románico más destacable de esta iglesia es la portada, que aparece cobijada por el pórtico construido a finales del siglo XVIII. Se trata de un ejemplar de dos arquivoltas y sobrearco. La arquivolta interior es baquetonada, mientras que la exterior se moldura con espacios cóncavos y convexos, a los que se les añade una fina cenefa de puntas de diamante. El sobrearco aparece decorado con ajedrezado, y el conjunto descansa sobre una inposta lisa.



Portada

Portada

Ate-zangoen ertzak biribilduta daude, eta zango horien gainean landare-motiboak sartu dituzte kapitelen ordean. Era berean, harroin lekuan beste zerrenda apaingarri bat dator, puntadun hosto-irudiz apainduta.

Eliza honetako portada zistertar joerakoa da; ezagun du, forma bakunak dituelako eta dekorazio urrikoa delako. Inertziako erromanikoaren azken urteetako delako erakusten du.

Testua eta argazkia: REA

Las esquinas de las jambas están redondeadas, y sobre ellas se aprecian motivos vegetales incisos que sustituyen a los capiteles. En el lugar de las basas hay una cenefa corrida decorada con hojas puntiagudas.

La portada de esta iglesia está influenciada por la corriente cisterciense, algo que se aprecia en la pureza de sus formas y en la ausencia de decoración historiada. Todo apunta a una fase ya tardía, en el románico de inercia.

Texto y foto: REA

### *Bibliografía / Bibliografía*

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 107; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 176; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 152-153, fig. 189, 191.